

## JESUS ETA HAMAR LEGENARDUNAK

1

Alkarrekin ebiltzan  
hamar legenardun,  
gizartetik botata  
mendietan urrun.  
Jesus ba etorrela  
pozik dabe entzun,  
eta Berari deika  
gogor dabe jardun.

3

“Poz-pozik egingo dot  
zuen alde dana,  
zuek joan eta bete  
Legean esana:  
Zoaze alkarrekin  
abadeakana,  
holan lortuko dogu  
danok pixkabana”.

5

Hamarretik bakarra  
dator eskerronez,  
“Ta besteak nun dira”?  
Jesusek dinonez.  
Mesedeak hartuta  
eskerrik emon ez?  
“Zoaz, fedeak osa  
zaitu zorionez”.

2

“Ene Jesus Maixua,  
errukiz betea,  
legenak jota gagoz  
erruki zaitea!  
Alperrik da eskean  
inora joatea,  
izan gutaz erruki  
ta borondatea”.

4

Bidean joiazela  
a zer zoramena!  
Garbitzen joan jake  
zeharo legena.  
Ikusirik lortuta  
eskatzen ebena,  
euren bidetik doaz,  
hauxe da txarrena.

6

Gorputz ta arimaz  
berez dator txarra,  
osorik dogu Jesusek  
osatu beharra.  
Gatx danak osatzeko  
Hak badau indarra,  
gu osatzekorik  
Bera da bakarra.